PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Igari-Bidankoze Monolitoa

Memorial honek
Igari-Bidankoze monolitoa du izena
eta Bidankozeko mendiko portuan dago.



Mapa honetan kolore gorrian
Bidankoze non dagoen ikus dezakezu.

Frankismoaren garaian frankistek
preso asko lan publikoetan
bortxazko lanak egitera behartu zituzten,
adibidez, errepideak, zubiak edo eraikinak egiteko.
Bortxazko lanak pertsona batek behartuta
eta dirurik jaso gabe egiten dituen lanak dira.

Frankistek bortxazko lanak
presoak umiliatzeko eta zigortzeko,
obrak merkeagoak izateko
eta frankismoaren pentsatzeko modua inposatzeko
erabiltzen zituzten.

Bortxazko lanak Errepublikanoei
haien bizitza frankismoaren Espainia Berrian
nolakoa izango zen erakusteko
erabiltzen zituzten ere.
Gogoratu Errepublikarrek
Gerra Zibila galdu zuten pertsonak zirela.

1939. urtetik aurrera frankistek
Igari eta Bidankoze lotzen dituen errepidea eraikitzeko
2.300 preso baino gehiago
bortxazko lanak egitera behartu zituzten.

Memoriaren Bideak elkarteak helburu hauek ditu:

- Espainiak Frantziarekin duen mugan
  Mendebaldeko Pirinioetako obretan
  bortxazko lanak gin zituzten pertsonen bizitza
  nolakoa izan zen ikertzea.
  Herritarrei preso horiek nola bizi ziren erakustea.

2004. urtean
Memoriaren Bideak elkarteak
monolito bat jarri zuen
errepide horretan bortxazko lanak egin zituzten
frankismoko presoak gogorarazteko.
Monolito bat harrizko monumentu bat.

Memoriaren Bideak elkarteak
urtero omenaldi bat antolatzen du gune honetan.

2019. urtean Nafarroako Gobernuak
monolito hau
Nafarroako Memoria Historikoaren Tokia bezala izendatu zuen.

Esteka honetan
Igari eta Bidankoze arteko errepideari buruzko
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu esteka honetan:
https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/igari-bidankoze-monolitoa#landmark-video-1

Hemen monolitoaren argazkia ikus dezakezu:



Hemen Memoriaren Bideak urtero egiten duen
omenaldiaren argazki bat ikus dezakezu:

